

BARRE-GAIAK

GABONETAKO ERREGALOA

Gabonak dira eta Erregenak. Andre Joxepak Oto'ri:

- Etorri, maitea, zure Gabonetako erregalo arrigarria erakutsiko dautzut. Uri osoan ibillia naiz billatzeko.
- Ba-noa, ba-noa, bereala.
- Egon apurtxo batean, soñean zein ederto emoten dausten ikusi dagizun...

ZALDI-LAISTERKETA

Oto'k txartelak erosi ditu zaldi-kinieletakoak eta Lasarte-inguruan zaldi batek esaten dautso.

- Oto! Lenengo laisterketa-aldian neuk irabaziko dot.
- Oto begira-begira eta zalantzan geratu jako.
- Arritu egiten al zara izketan egiten deutzu dalako, ala?
- Ez, ez, orregaitik, ez, zuk lenen aterako zarala sinisten dozulako, baiña.

AUZOKO ANIXETA

Auzoko Anixeta, atso zaartuak, Pototo'ren dendan sartu eta arratoiak akabatzeko pozoia eskatzen dau. Bigaramonean or datorkio barriro irriparre gozoenarekin, esanez:

- Parkatu, jauna, emen dakarkizut barriro atzo eroandako pozoia eta emon egidazu dirua.
- Zer, ba? Arratoiak amaitu dira, ala?
- Ez, jauna, ez da ori.
- Zer da ba?
- Kasualidadez bart il dala, istripu batean, nire senarra...

OTOTXOREN ALMENDRAK

Gabonak igaro dira umore onean. Turroia be jan dabe nai-koa. Pozik Ototxo eta gaur, barriz, pozago: ez dau ba, kajoi batean, almendraz betetako zorrotxo bat topa...! Au poza!

- Nun aurkitu dozu? –Amak.
- Aitetaren gelan.
- Ai, ene! Ez egizuz jan.
- Zergaitik ez? Oso gozoak dira.
- Aitak eroan dauz agiñak konpontzera.
- Eta zer, gozoak dira-ta!
- Alicante'ko turroia jan dogula aurtan...
- Eta, zer...?
- Ezin dauala jan...
- Eta, zer...?
- Miaztu bakarri egiten dauala...
- Eta, zer...?
- Ari miazkatzen sobratutako almendrak dirala.
- Kotxino...!

OTOTXOREN ATERALDIAK

Ototxo bialdu dau aitak Korreo-bulegora eskutitz bategaz, gizon prestu bateri Gabonetan zorionak emoteko. Zenbaitzue-

kin ondo gelditzea komeni eta marrazki eder-eder bat bialdu dautso. Ofizinakoak mutillari:

- Karta onek pixu geiegi dau eta seillo bat geiago ipiñi bear-ko dautsozu.
- Pixu geiegi dau?
- Bai.
- Eta, orregaitik beste seillu bat ipiñi bear dautsot?
- Bai.
- Ez al dau orrelan pixu geiago izango...?

ETXARRI'KO ERA BARRIA

Europar sartu geran ezker, Etxarri'n azoka europearra antolatzea erabagi eben. Ori aurrera eroateko gizon azkar bat fitxatu dabe Udalerako, Pototo jauna.

Pototo komunikabideetako injiniero famatuak, errian ordenamentu barriak ipintzea dau asmo. Erosi ditu kartel-agiri barriak: urdiñak eta gorriak. Sakabanatu ditu erri osoan: emen gorria, an urdiña; an gorria, emen urdiña... Zoragarri polit. Beste erri bat dirudi.

Azoka egunean estrenatu eben ordenamentu barri ori. Goiz ederra eta egusenti argi epela. Ba-datoz lau aizeetatik automobilak jeneroz beterik.

Oto ere emen da.

Alemania'tik ekarri dauz txarri bereziak: saiatza zur bat geiago dauke eta luzegoak dira ogi gabeko eguna baiño.

–Baiña-diñotsa Pototo jaunak —zelan ekarri dazuz karriak Etxarri'ra mendiak txarritz beteta dagoz eta...?

–Baiña oneik, luzeagoak dira.

–Txarria, laburra ohea, iñoan gure aitona.

Dana dala, txarriak emen dagoz, eta zer ez da errira etorri...! Sekulako azoka ederra.

Illunabarrean asi dira urteteko asmotan berebillak berotzen... Zer arrano gertatzen da emen? Sartu errez sartu dira guztiak; nolanaiko aukerak errian sartzeko; baiña, orain sekulako iskanbilla sortu da.

Otok protesta:

–Sarrerak ugari; urteerarik bat be ez.

IVA kentzeko era ona da ori! Jeneroak sartu eta atera ezin...

ARGI-MUTILLAK ETA ZUGAITZAK

Ototxo bere aitagaz dabil eta "Lagun" bere txakurrak ankatxoa jaso dau zugaitz-enborraren kontra.

–Aitatxo, zergaitik dira tantai-arbolak ain luzeak.

Otok, txakurrak zer egin dauan ikusita, onelan erantzun dautso.

–Txakurrak ureztatzen dabezelako.

–Orduan ba-dakit zergaitik diran ain luzeak erriko argi-mutillak.